

### Zer da? Zertarako da?

Titularraren helbide fiskala edo bestelako datu pertsonalak aldatzeko, udal tasa eta zergen ordainketei dagozkien jakinarazpenei begira.

### Zer da helbide fiskala?

Pertsona fisiko batentzat: ohiko etxebizitza.  
Pertsona juridiko batentzat: egoitza soziala.

### Nork eska dezake?

Interesdunak edo haren legezko ordezkariak

### Aurkeztu beharreko agiriak

[eskaera inprimakia](#) eredu normalizatuan  
Ordezkaritza egiaztatzen duen agiri normalizatua  
Alokairuan egonez gero, alokairuaren kontratua

### Nola eskatzen da?

**Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00**.

Astearte eta ostegunetan **08:00-19:00**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

**Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orrria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

**Internet:** [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) web orriaren bidez eskaera-orrria bete eta Udaletxean aurkez dezakezu.

**Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu

### Zenbat kostatzen da?

Doan

### Prozeduraren epea

Unean bertan

### Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura

- Helbide fiskala eta datu fiskalak aldatzeko eskaera jaso eta datuak egiaztatu.
- Eskaera erregistratu, sartu Espedienteen kudeaketarako Programan eta datuak USOA aplikazioan aldatu.

### Tramitatzeko ardura duen udal saila

Errenta Saila

Informazio gehiago: 943 337046 edo [errenta@hernani.eus](mailto:errenta@hernani.eus)

### Oharrak

- Zergadunak ez badio jakinarazi Zerga Administrazioari zerga helbidea aldatu duenik, jakinarazpenak egiteko ulertu ahal izango da bere helbidea zerga izaera duen edozein dokumentutan hark aitortu edo adierazitako azkena dela.
- Zergapekoak zerga helbidea adierazi ez badu, bitartean, bera titular gisa ageri den edozein ondasun higiezinaren edo ustiapen ekonomikoren kokalekua hartuko da halakotzat.

### Araudi aplikagarria

- *Martxoaren 8ko 2/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra.*